

LIBER 2004 Azoka
Liburuaren Nazioarteko 22. Azoka
22ª Feria Internacional del Libro
22ª Fira Internacional de Libre.

Bartzelona (Montjuic Palau), 2004-IX 28 eta 2004-X-01, 02.

Estandak jarri, liburuak, CDak eta Webgunea erakusgai jarri irailaren 28an.
Azoka eguna: irailaren 29 eta urriak 2.
Erakusketa ordutegia: 10 - 19,30

Euskaltzaindiak azoka honetan, *Institut d'Estudis Catalans* eta *Consello da Cultura Galega*-rekin batera material ugari aurkeztu du. *Institut d'Estudis Catalans* eraman du koordinazio lana eta antolaketaren ardura nagusia. Eta bertan, aipatzekoa dugu, bereziki, Manuel Pascual i Rodriguez (*Distribució de Publicacions*) jaunak buruturiko lana: koordinazioa, antolaketa, publizitatea eta abar.

Instituzioaren ordezkariak: Juan Jose Zearreta, kudeatzailea; Jon Artza, Argitalpen zerbitzuko salmenta-ardurana eta Ricardo Badiola, Argitalpen eragilea izan dira irailaren 29an eta 30ean.

Liber 2004 Azokak honako babesleak izan ditu: Madrileko Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa; liburu, artxibo eta biblioteka Zuzendaritza; Ajuntament de Barcelona (Institut de Cultura); Generalitat de Catalunya (Departament de Cultura); ICEX (Instituto Español de Comercio Exterior); CEDRO (Centro Español de Derechos Reprográficos); Gremi D'Editores de Catalunya; Iberia...

Nazioarteko erakusketan honetan, 800 bat erakusle izan dira:

Administrazioak: Madrileko Ministerioa de Cultura eta *Boletín Oficial del Estado*, Andaluzia, Kanariar Irlak, Katalunya, Castilla-León, Nafarroa, Euskal Autonomia Erkidegoa, Galizia, Extremadura.

Editore ekarteak: Katalunya, Madril, Euskadi, Extremadura, Kanariak, Galiziako Xunta, Aragoia, Zaragoza, Lleida, Castellon, Tarraona, Valentzia, Santandere, Asturias...

Beste zenbait Estatu: Israel, Grezia, Txipre, Mexico, Uruguay, Argentina, Costa Rica, El Salvador, Guatemala, Honduras, Nicaragua, Panama...

Editorialak: Anaya, SM, Desclée de Brouwer, Edelvives, EDEBE, ECU, Giltza, ...

* * *

Euskaltzaindiak honako erakusgaiok izan ditu: *Euskera* agerkaria, Arauak. *Iker* bildumatik: azken bi edo hiru liburuki; Hiztegietatik: R.M. Azkuerena, *Hitz elkarketa*, *Voces alavesas*, *Orotariko Euskal Hiztegia*, Gramatikak, *Hizkuntza Atlasaren Antologia*, Izendegiak, Onomasticon Vasconiae bildumatik laupabost, Literatura bildumatik: B. Etxepare, Axular, Andrés De Poza, Ubillos, Ioannes Leizargia, R.M.Azkue: *Cancionero Popular Vasco*; J.B. Gamiz Ruiz de Oteo, Antoine d'Abbadie; Literatura sari-ketakoak: Bilbao Bizkaia Kutxa–Euskaltzaindiaren artekoak; Euskararen Lekukoak bildumako azken-azkenak, *Jagon* bildumakoak, Katalogoak: *Argitalpenen katalogoa*. Argitalpen solteak: *Euskararen Liburu Zuria*, *Hitz egin* metodoaren irakurgai zenbaitzuk, Pedro de Yrizarren *Morfología del verbo auxiliar* (hauetatik azken bi edo hiru), Madrileko Ministerioak argitaraturiko *Euskaltzaindia* liburukia eta beste zenbaitzuk. Haeuz gain, Standearen inguruan Erakundeak kaleraturiko argitalpenen harpidetza-orriak, *Katalogoa* eta abar.

Jakina denez LIBERen ez da zuzeneko salmentarik egiten. Dena den argitalpen katalogo ugari banatu dira eta bisitarien arreta ikusirik, fruituak gerora espero dira.

Antolaketak eskainitako telefono-linea erabiliz eta ordenagailuaren laguntzaz, Institut d'Estudis Catalans eta Euskaltzaindiaren Web-guneak erakusgai izan dira denbora osoz.

Horrez gain, Euskaltzaindiaren sorrera, bilakaera eta egungo egoera azaltzen dituen proiektio digitala aurkeztu eta eskaini da Azokan. Aurkezpena *Powerpoint* programan egina dago eta testuak euskaraz eta katalanez idatziak.

Euskaltzaindiko estandera hainbat jendek jo du argibideen bila: Arauak, Izenak, toponimia, euskara ikasteko metodoak, euskal aditza, hiztegi-gintza... sariketei buruz..., euskal entziklopediak, euskararen jatorria, bibliografia... Eta hurbildurikoen artean aipatzekoak dira: Israelgo Enbaxadore-ordezkoa eta hebraieratik gaztelania eta ingelese-ra testu itzultzaile burua, Poloniako estandekoak, Estoniakoak, Asturiaskoak, Andaluziakoak, Aragoiakoak, *El Correo Español*, *El Mundo*, *El País*... egunkarietakoak.

Bestalde, bai aurreinpresio edo fotokonposizio saileko eta bai inprimategietako eskaintzak egitera hainbat merkatal etxek jo dute Euskaltzaindiko estandera.